

2014-07-22ko EZOHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2014ko uztailaren 22an, arratsaldeko 07:00ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ainhoa Ugalde Gorostiaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta ondorengo gaiak aztertzeke zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Tomas Etxeberria Sarasola, Gorka Murua Macuso eta Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Josu Yurrita Loitegi.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusinek, Udaleko idazkariak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2014-06-26).

2014ko ekainaren 26ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO EKAINAREN 20TIK 2014KO UZTAILAREN 21RA (120/2014-137/2014).-

Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2014ko 120 zenbakitik 137 zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2014-2016 KIROL EKIPAMENDUEN PLANAREN BARRUAN, IRURAKO AZPIEGITURA EZARTZEKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Gipuzkoak Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, 2014 martxoaren 25ean egindako batzarraldian, onartu zuen erabaki hau: 2014-2016 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko diru laguntzak arautzeko oinarriak.

Hala ere, Udal honek nahi du ezartzea hiri guneko kirol instalazioak, skateko pista, hain zuzen ere, aisia eta jolas asmoko jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko eta edozein herritarrek erabiltzeko.

Kirol Instalazio hau Zilar Kalean, 1-3an, ezarriko da, Ekipamendurako Sistema Orokorrean, Irurako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren arabera. Instalazioaren hasierako aurrekontua 115.000 euroko izango da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez, hau erabaki du:

E R A B A K I A:

Lehena.- Kirol instalazio hau, Skateko Parkea ezartzeko, Zilar Kalea, 1-3an, akordio onartzea.

Bigarrena.- 2014-2016 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduaren oinarriak beteko direla onartzea.

Hirugarrena.- Akordio honen ziurtagiria bidaltzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuari.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO MENDIAN LARRATZEKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

José Antonio Iturbe jaunak, eskaria hau egiten du: nire abere kopurua orain 150 ardi,10 behi eta 3 behorrena dira gutxi gora behera. Orain arte bezala, Irurako Mendia Udal sailak erabiltzea, lur horiek garbi eta txukun mantentzeko zin egiten du eta eransten du Udal sailen mapa, erabiltzen ditudan lurak markaturik.

Udalaren lur horiek Lur komunalak dira eta Herri Onurako Mendia ere.

Jose Antonio Iturbe jauna, bertako herritara da eta udalerriko nekazari ustiapenaren titularra (Ustialekuaren zk.: 20 046 001 007). Gainera azken urteetan ibili da bere abereekin Irurako Mendiko sailak larratzen.

Udalak ontzat hartzen du hau: Larratzea, mendi horrek izan ditzakeen ustiapenetako bat, mendia zaindu eta hobetzearekin bat datorren moduan egin behar da, uztailaren 8an emandako Gipuzkoako Mendien 6/1994 Foru Arauari ezarritakoari jarraituz.

Ez dago nekazarik edo abeltzaintzarik eskatu duenik Udalaren lur hauek larratzeko.

Hori dela eta, Udalbatzak, aho batez, hau erabaki du:

E R A B A K I A

Lehena.- Irurako Udalak baimena ematen dio Jose Antonio Iturbe jaunari, aipatu diren abereak larratzeko Irurako Mendian, finkatu den lurretan. Baimen hau urtebeterako izango da.

Bigarrena.- Baimena ematea Alkateari, hitzarmena sinatzeko Udalaren orde.

BOSGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez da galde-erregurik egon.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 08:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA